

**Santa Marina  
Ospitalea**  
2018 · 2022  
Plan Estrategikoa



**Osakidetza**

SANTA MARINA OSPITALEA  
HOSPITAL SANTA MARINA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SALUD

## Ziklo berri bat

Santa Marina Ospitaleko zuzendaritza-taldeak ziklo estrategiko berriari helduko dio, ikuspegi berritzailearekin eta Osasun Sailaren eta Osakidetzaren erronka estrategikoei eta erronka soziosanitarioei egokitu, gure **misio, ikuskera** eta **balioei** ikuspuntu berri-tua emanaz eta Plan honen ardatz izango diren bost zutabeetan oinarrituta.

Interes-taldeetako profesionalak eta ordezkariak (beste erakunde batzuk, egoitzak, zainzaileak eta hornitzaileak) parte hartu

dute plana egiteko prozesuan, beren itxaropenak eta beharrak ezagutu nahi baikenituen, bai eta haien ekarpenak Planean txertatu ere.

Santa Marina Ospitalerako **2018-2022 aldiko Plan Estrategikoa**, bada, profesionalen eta gainerako parte-hartzaileen lanaren eta ahaleginaren ondorio da, eta, horri esker, modernizatu eta hobetu egingo dugu gure pazienteei eskaintzen diegun osasun-arreta.



## Honela egin genuen



### Bilerak

Planaren talde teknikoak bilerak egin zituen zenbait hilabetetan zehar, zirriborroa eta, gero, behin betiko bertsioa osatzeko.



### Ikestak

Inkestak egin genizkien interes-taldeein eta paziente eta senideei, gure estrategia berriarekiko zer behar zituzten jakiteko.



### Elkarrizketak

Erakundeak elkarrizketatu genituen, gure planarekiko zer itxaropen zituzten jakiteko.



### Lantegiak

Lantegiak egin genituen ospitaleko profesionalekin, estrategia berriko ideia eta iradokizunak proposatzeko.

## Misioa

Kronikoen ospitale bat gara, eta adineko pertsonen eta/edo gaixotasuna fase aurreratu duten pertsonen arreta integralean erreferente. Beste erakunde batzuekin koordinatuta lan egiten dugu, artatzen ditugun pertsonen laguntza-jarraitutasuna bermatzeko, bai eta beren beharretara hoberen egokitzen den ingurura itzultzen direla bermatzeko ere.

## Ikuskerera

Honelako erakunde izan nahi dugu 2022an:

- Pertsonen beharrei kalitatezko erantzuna ematen dien eta zahartzearen, kronikotasunaren eta mendekotasunaren erronka aintzat hartzen duen erakunde.
- Pazienteei eta haien senideei arreta humanizatua, gertukoa, konfiantzazkoa eta egokia ematen dien eta profesional inplikatuak dituen erakunde.
- Gure laguntza-zainketak tratuaren eta erosotasunaren zainketa intentsiboak izatea lortzea nahi duen erakunde.

## Balioak




### Ambizioa

Ematen dugun arreta hobetzeko eta gure pazienteen itxaropenak gainditzeko nahiak motibatzen gaitu egunero. Betiere, erabakitazunez, ahaleginduta, efizientiaz, gardentasunez eta zerbitzu publikoko bokazioa izanda.



### Gertutasuna

Gure pazienteengandik eta haien senide eta zainzaileengandik, gure profesionalengandik eta gure inguruko beste erakunde batzuen gandik gertu egon nahi dugu, elkarrekiko errespetuan, komunikazioan eta adeitasunean oinarritutako arreta eskaintzeko.



### Konpromisoa

Langileok Santa Marina Ospitalearen erronkekin identifikatzen gara, horren partaide bakara.



### Profesionaltasuna

Bikintasuna aintzat hartzen dugu eta taldean lan egiten dugu, pertsonak ardatz dituen eta integrala, diziplina anitzekoa, segurua eta kalitatezkoa den arreta-eredu bat lortzeko.



### Berrikuntza

Behatzen, hausnartzen eta pentsatzen dugu, hobetze-ko, eboluzionatzeko eta eraldatzeko.




### Jasangarritasuna

Gure emaitzak hobetzen ditugu, gure sistemaren laguntza-, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-jasangarritasuna zainduz.

## Ospitalearen definizioa

Santa Marina Ospitalea kronikoen erakunde sanitario integratu monografiko gisa sailkatzea proposatzea Osasun Sailari eta Osakidetzari.

- Kronikoen erakunde sanitario integratu monografikoa erakunde sanitario mota berriztat jotzea proposatzea.
- Santa Marina Ospitalea kronikoen erakunde sanitario integratu monografiko gisa sailkatzea eskatzea Osasun Sailari eta Osakidetzari.



## Pertsonak eta osasun-emitzak, arretaren ardatz

Pertsona guzti-guztiek osasun-arreta jasotzea bermatzea, gure pazienteen osasun-desberdintasunak kontuan izanda.

Herritarrek parte hartzea eta haiek ahalduntzea sustatzea.

Arreta gizatiar, seguru, eskuragarri eta kalitatezkoa bermatzea, eta balio handiagoa ematea pazienteei eta haien zaintzaileei.

- Unibertsaltasuna eta ekitatea prestazioak jasotzeko orduan.
- Arreta humanizatzea.
- Herritarren parte-hartzea eta ahalduntzea.
- Hobetsitako hizkuntza ofizialean arreta ematea.
- Pazientearen segurtasuna.
- Laguntza eskuratzeko modua hobetzea.
- Osasun-emitzetara bideratutako arreta.



# Integrazio asistentziala eta kronikotasuna

Paziente kronikoei eta zainketa aringarriak behar dituztenei ematen diegun arreta integrala hobetzea, eta Osakidetza eta arlo sozialeko beste erakunde batzuekin dugun koordinazioa bultzatzea.

IKTak sendotzea, eta erizainen rolari eta eskumenei buruz hausnartzea.

- Arreta integratua.
- Informazio klinikoko sistema integratuak.
- Gaixotasun zehatz batzuk dituzten pertsonentzako arreta.
- Erizaintza berrantolatzea.
- Osasun mental integratu baten norabidean.
- Koordinazio soziosanitarioa.
- Preskripzioaren erabilera egokia.

# Profesionalak etorkizuna eraikitzen

Enpresa-eredu osasungarri bat bultzatzea, ospitalearen eta Osakidetza partaide izatearen sentipena sustatuz, komunikazioaren, parte hartzearen eta profesionalen dimentsionamendua eta enpleguaren kalitatea hobetzearen bidez.

Gure langileak behar bezala gaituta eta prestatuta daudela eta birziklapen profesionala egiten dutela bermatzea.

Ezagutzak hedatzeko eta trukatzeko eremuak erraztea.

- Partaide izatearen sentipena eta nortasun korporatiboa.
- Profesionalen beharra.
- Enpleguaren kalitatea hobetzea.
- Profesionalen trebakuntza.
- Prebentzioa eta lan-osasuna lantzen jarraitzea.






## Kudeaketa aurreratu jasangarria eta sistema sanitarioaren modernizazioa

Eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea, jardun asistentzialaren eta kudeaketa-eredu korporatiboa hedatzearen bidez.

Teknologia eta azpiegiturak, bai eta horien mantentze-lanak ere, berritzen jarraitzea.

Aurrekontu-egonkortasuna eta -jasangarritasuna, ingurumen-jasangarritasuna eta energia-eraginkortasuna bermatzea.

- Asistentziaren eraginkortasuna eta efizientzia.
- Kudeaketa aurreratu.
- Efizientzia eta modernizazio teknologikoa.
- Ingurumen-jasangarritasuna eta energia-eraginkortasuna.
- Jasangarritasuna eta aurrekontuen efizientzia.
- Azpiegitura fisikoak berritzea eta modernizatzea.



## Berrikuntza eta ikerketa

Sailak proposatutako lerroetan ikertzea eta berritzea sustatzea.

Gure inguruko beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzea, eta balio erantsia eskain dezakegun arloetan gure ezagutzak partekatzea.

- Ikertzeko eta berritzeko lehentasunak eta/edo erronkak, gure pazienteen tipologiarekin bat datozenak, identifikatu eta hautatzearen bidez.
- Proiektu korporatiboetan edo beste erakunde batzuenetan parte hartzearen bidez, gure ezagutza horietarako baliotsua baldin bada.